

AUZOLANA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK 2020KO DEIALDIA

OINARRIAK

1. Helburua

Oinarri hauek auzo-elkarteei diru-laguntzak eta laguntza publikoak lehiaketa bidez emateko prozedura orokorra arautzen dute, 2020 ekitaldirako; horren kudeaketa Hernaniko Udalaren Partaidetzako Sailari dagokio.

Oinarri hauek udalak indarrean duen Diru-laguntzak Emateko Araudiaren 7. artikuluan xedatutakoa garatzeko ematen dira.

Deialdi honen helburua auzo-lana sustatzea da (Auzolan).

2. Aurrekontua eta programak

Deialdi honen helburuak lortzeko 25.000 euroko diru kopurua dago 2020ko ekitaldirako; aurrekontuaren ondorengo partida honetan: 02.481.05.924.00 "Auzolan programa".

3. Onuradunak

Diru-laguntza hauek eskatzeko aukera izango dute legez osatu eta Auzo Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta dauden elkarteek. Horrez gain, beren egoitza eta jarduera esparrua Hernanin izan beharko dute.

Halaber, elkarteek gutxienez hamar kidez osaturik daudela ziurtatu beharko dute.

4. Bazterketak

Deialdi honetatik kanpo honako hauek geratzen dira:

a) Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.

b) Direnagatik edo duten helburuagatik Partaidetzako Sailaren jarduerekin inongo loturarik ez duten jarduerak.

c) Edozein motatako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere. Betebeharrak egunean dituzten jakiteko egiaztapena egingo da, ofizioz.

d) Ez dira aintzat hartuko aurreko edizioetan jasotako diru-laguntza justifikatzeko memoria entregatzeko dituzten jarduerak edo programak

e) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio iritziagatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkarten eskabideak.

f) Onuradunek, indarrean dagoen lege araudi bete beharko dute, besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 legea.

5. Eskabideak

Diru-laguntzak hauek jaso ahal izateko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte eskatzaileek:

- a) Diru-laguntza-eskabide normalizatua, bete eta sinatua
- b) Diru-laguntza xede izango den jardueraren deskribapena, bai eta aurrekontuarena ere (1 eranskina)
- c) Identifikazio Fiskaleko kodearen dokumentuaren fotokopia (IFK).
- d) Zerga bidezko betebeharrak, gizarte segurantzarekikoak eta BEZ araubidea egunean edukitzearen aitorpena (2. Eranskina).
- e) Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen estatutuak eta curriculum: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.(sortu zenetik aldaketak izanez gero).
- f) Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundearen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (2020 urtekoa). Aurreko urteetan diru-laguntza jaso duten elkarteek Eusko jaurlaritzan izena emanda jarraitzen dutenaren aitorpena.

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Hernaniko Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, beharrezkoa den jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

Dokumentazioa eta informazioa lortzeko eta eskabideak aurkezteko lekua: Udalaren web orrian www.hernani.eus. Eta leku honetan

hhz- Herritarren Harrera Zerbitzuan

Udaletxeko beheko solairuan

Astelehenetik ostiralera: 08:30- 13:30 (aldeztatik aurretik eskatu behar da hitzordua)

Eskaeraren ale bat erakunde eskatzaileak jasoko du, eta bestea, Partaidetzako Sailera bideratuko dena, Sarrera Erregistroan.

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 lan-eguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela, gaur egungo arauak agintzen duenez.

6. Epeak

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar eguneko epea izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Ezarritako epeak nahitaez beteko dira, eta ez da salbuespenik egingo.

7. Diruz lagunduko diren gastuak

Diru-laguntza gastu hauetarako izango dira:

- a) Auzolan egitasmoak garatzeko behar diren baliabide materialak hornitzeko gastuak.
- b) Auzolanean sortutako hondakinak kudeatzetik eratorritako gastuak, betiere hondakin bakoitza egoki kudeatu dela justifikatzen bada. Horretarako, dagokion agiri ofiziala aurkeztu beharko da.
- c) Auzolan-proposamenarekin erlazionatutako ikerketak egitearekin eragindako gastuak. Udalak izendatuko du Ikerketa hauen errealizazioa egiteko teknikaria.

Ez dira diruz lagunduko udal teknikariren baimenik gabe egiten diren kanpo kontratazioen gastuak, hauek ez baitira auzolana kontsideratzen.

8. Eskabideak ebaluatzeko irizpideak

Aurkeztutako eskabideak Herriarrentzat Zerbitzuak Batzordean tramitatuko ditu, bai aztertu eta baloratu ere.

Erabakiak hartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, baina aurrez Herriarrentzako Zerbitzuak Batzordeak bere ebazpena emango du.

Hauek izango dira irizpideak:

- a) Auzolanean parte hartzen duten auzokideen partaidetza; kontuan hartuz, sexua, adina, jatorria....
- b) Auzoan talde antolatutak badaude, hauekin elkarlanean egitea auzolan proiektua.
- c) Auzoan edota auzokideen artean izango duen eragina

Eskabide kopuruak zenbateko handiagoa ematea eskatzen badu aurrekontuko zenbatekoa eskatzaileen artean banatuko da eta jaso beharreko zenbateko gutxitua banatu egingo da.

9. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

Diru-laguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako diru-laguntzak gehituta).

Eskatzaileak ebazpenaren berri jasoko du idatziz eta arrazoitua betiere. Jasotzekoak diren kasuetan honakoak zehaztuko dira: diru-laguntzaren kopurua, ordainketa modua, zuritzeko modua eta oinarri hauetan zehazten diren beste hainbat baldintza eta betebeharrak.

Aurkezten diren proposamen zuriketak Alkate dekretuz ebatziko dira.

Ordainketa:

Diru-laguntzaren %80ko kopurua diru-laguntza ematea onartzen denean ordainduko da. Gainontzeko %20a auzolan gastuen zuriketa egin ondoren ordainduko da.

Gastuen zuriketa egitasmoa bukatu eta hilabeteko epean (**beranduenez 2021eko martxoaren 31n**) aurkeztu beharko da. Zuriketa egiteko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Diruz lagundu den programa edo jardueraren memoria xehatua.
- b) Sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa.
- c) Egindako gastuen agiriak (fakturak, ordain-agiri eta tiketak edo antzeko dokumentuak).
- d) Dokumentazio grafikoa (argazkiak, kartelak).

10. Publizitatea

Diruz lagundutako jarduerari publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatzen duten auzo elkarteek Hernaniko Udaleko laguntza jaso dutela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera, eta Hernaniko Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak kontuan hartuta:

Herritar multzo euskaldunari zuzendutako idatzi, publizitate, iragarki ohar eta ginerakoak ahozkoak zien idatzizkoak, euskaraz izango dira.

Beste hizkuntza erabili behar denean euskarazko mezua lehenetsiko da.

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko.

Horretaz gain, egitasmoarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkuntza ez irudi sexistarik ere.

11. Ebazpen-epea eta berri ematea

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu guztietan auzo-elkarteari ebazpenaren berri emango zaio, diru-laguntza jaso ala ez.

Emandako diru-laguntzan berri Udaleko iragarki taulan emango da eta ebazpenaren laburpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN. Nahikoa izango da Udaleko iragarki taulan jartzea, emandako diru-laguntza bakoitza 3.000 euro baino gutxiagokoa denean.

12. Ez-betetzea

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada diru-laguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da., diru-laguntzak emateko udal araudiaren 17. artikulua aurreikusitako eran.

Diru-laguntzak itzultzeko prozesura ofizioz hasiko da, laguntza edo diru-laguntza eman zuen organoaren eskariz, eta hala badagokio, emandako diru-laguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

Oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

13. Araubidea

Deialdi honetan xedatu gabeko guztia Hernaniko Udalaren Diru-laguntzak Emateko Araudiaren arabera arautuko da, eta Diru-laguntzan inguruko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera. Araudia urtero berrikusiko da.

DOKUMENTAZIOA

Honakoa aurkeztu beharko da- (X jar ezazu,)

- Eskabide orria betea eta sinatua.
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen estatutuak, bazkide kopurua, kideak, kuotak...
..
- Auzolanean egingo den egitasmoaren norakoak eta aurrekontua (1. eranskina).
- Zerga-bidezko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ-araubidea egunean edukitzearen aitortpena. (2. eranskina)